



2012 URT. 05

SARRERA

Zk. / N.º 6.1

Ofi 2012-C-00012  
LU/ju

HERNANIKO UDALA  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua  
Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias

2012 URT. 05

Zk. / N.º 15

**HERNANIKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA**

Gudarien plaza, 1  
20120 HERNANI

Gutun honen bidez Urumeako autobideko proiektuaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Garraio Publikoko Departamentuak harturiko erabakiaren berri eman nahi dizuegu.

Egun dagoen tunela eta gaineko errepideari eman beharreko soluzioaren inguruan proiektuak aldaketa bat izatea erabaki dugu. Egungo tunela kendu eta beste tunel faltsu bat egin beharrean errepidea irekita geratzea eta tunelaren gainetik pasatzen den errepideari alternatiba bat jartzea deliberatu dugu.

Batetik Hernaniko Udalarekin bildu gara. Udal alkatearekin, zinegotziarekin eta Udaletxeko teknikariarekin egindako bileretan Hernaniko udaletxearen postura argi utzi diguzue, hasierako soluziobidearen aldeko jarrera duzuela, hau da tunel faltsua jartzearen alde zaudetela gogor defendatuz.

Bestetik, gure departamentuko teknikariek eta Ingurumen departamentuko teknikariek errepidea irekita uztearen kalte paisajistikoa erlatibizatu egin dute, inguruaren balio ekologikoa zalantzan utziz.

Azkenik, argudio ekonomikoen gainean delieratu behar izan dugu. Hasierako proiektua errepsetatzeak 600.000 eurotako gastu gehigarria dauka, tunel berria egiteaz gain, egungo tunela berriztu egin behar delako. Tunelek urteroko mantenua 20.000 eurotan kokatuko lukete.

Ingurugiro argudioek ezin diete argudio ekonomikoei gain hartu, sostengarritasunaren aurka goazen heinean. Baina kasu honetan, egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuta, gune horren balioa guztiz erlatiboa iruditzen zaigu eta ez deritzogu proportzionala hainbesteko kostua suposatzen duen eta etorkizunera begira izango duen bukaera bat egiteari.

Beraz, gure erabakia atzoko datan hartutakoa, errepidea trintxeran irekita uztea izango da eta modu horretan exekutatu dugu obra.

Adeitasunez,

Donostia, 2012ko urtarrilaren 3a.  
MIGIKORTASUNeko ETA BIDE AZPIEGITURETAKO  
DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA,

Larraitz Ugarte Zubizarreta